

BILBOKO TRANBIAREN ZERBITZU BEREZIAK ETA MOZKETA PARTZIALA 18:00ETATIK 18:20RA, ATHLETIC CLUB ETA SEVILLA F.C. ARTEKO PARTIDUA DELA ETA

Datorren igandean, urtarrilaren 13an, Euskotrenek zerbitzu bereziak eskainiko ditu eta Bilboko tranbian mozketa partziala burutuko du Athletic Club – Sevilla F.C. partidua dela eta. Mozketa partziala, 18:00etatik 18:20ra burutuko da. Mozketa hori Bilboko Udalak koordinatutako udal Emergentsia Planaren barruan dago, Ligako partidura joan nahi duen jendearen irteera modu egokian bermatzeko

Atxuritik La Casillarako 15 minutuko zirkulazioez gain, Euskotrenek Atxuritik La Casillara 15:36an eta Pio Barojatik Ospitalera irtengo diren zenbait zerbitzu berezi ere eskainiko ditu ondorengo orduetan: 15:14an, 15:29an eta 15:59an

Partiduaren irteera modu egokian egiteko, 18:00etatik 18:20ra bitartean, gutxi gorabehera, zerbitzuaren mozketa partziala burutuko da La Casilla eta Euskalduna artean. Behin mozketa bukatuta Atxurirako eta La Casillarako tranbiaren zirkulazio bereziak martxan jarriko dira.

Partiduaren ondoren San Mamesetik hurbil dauden geralekuetan pilaketak ekiditeko, Euskotrenek Euskaldunako geralekura joatea aholkatzen du. Geraleku horretatik tranbiaren zerbitzu bereziak irteten dira. Bilboko tranbiarako sarrera errazagoa eta azkarragoa izan dadin, Euskotrenek ordaintzerakoan Barik erabiltzailea gomendatzen du.

Informazio gehiago lortzeko asmoz, erabiltzaileek 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete, tranbiaren www.euskotren.eus web gunea kontsulta dezakete, edota twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean eta Euskotrenen APP ofizialean

Igorpen data: 2019ko urtarrilaren 10ean

Euskadi, auzolana, bien común



